

18:00
ELIZA IKUSTEKO BISITA

18:30

Romanescak, foliak eta sonatak: Europara begira

LA TEMPESTAD

SILVIA MÁRQUEZ CHULILLA, ORGANOA
ANTONIO CLARES, VIOLA DA BRACCIO

Gutxitan entzuten den *viola da braccio* instrumentua lagun, Iberiar Penintsulako musikak leiho bat irekitzen dio gure mugetatik haratagoko musikariengan eta gorteetan eragin zuen lilurari: dantza herrikoietatik sonata formara, Espainia eta Portugaletik Italia eta Prusiarekiko loturetara.

EGITARAUA

Diego Ortiz (1510–1570)

Dos recercadas sobre La Romanesca [2']
(*Tratado de Glosas*, Erroma 1553)

Michelangelo Rossi (1602–1656)

Partite sopra la Romanesca [2'30"]

Diego Ortiz (1510–1570)

Dos recercadas sobre La Folía [2']
(*Tratado de Glosas*, Erroma 1553)

Alessandro Scarlatti (1660–1725)

Variazioni sulla Follia di Spagna [6'50"]

Johann Sebastian Bach (1685–1750)

Sonata en Sol menor, BWV 1029,
viola da gamba eta teklarako [14']
Vivace / Adagio / Allegro

Domenico Scarlatti (1685–1757)

Essercizi Musicali (1738) lanetik hautapenak [3'30"]

K. 17 Sonata Fa maiorrean

K. 18 Sonata Re minorrean

Luigi Boccherini (1743–1805)

Sonata Do minorrean biola eta baxuarentzat, G. 18 [11']
Moderato / Largo / Minuetto

Carl Philipp Emanuel Bach (1714–1788)

Sonata Sol minorrean biola eta klabezin
obligatuarentzat, Wq. 88 (1759) [18']

Allegro moderato / Larghetto / Allegro assai



La Tempestad

Moldaerrazak eta gogotsuak, bi interprete hauek kontzertu asko ematen dituzte. Antonio Clares ohiko kidea da interpretazio historizista egiten duten orkestra eta ganbera-taldeetan; Frans Bruggen-en XVIII. Mendeko Orkestrako kidea da, bai eta La Tempestad taldekoa ere, eta 1998tik biola irakaslea da Murtziako Musika Kontserbatorioan. Zaragozan jaioa, Silvia Márquez espezializatu zen teklatu historikoetan (klabezina, organoa, pianoforte) irakasle J. L. González Uriol zuela, eta ondoren Amsterdameko eta Hagako kontserbatorioetan ikasi zuen. La Tempestad taldeko zuzendaria da eta klabezin katedraduna Madrileko Musikako Goi Mailako Errege Kontserbatorioan.

www.latempestad.es

www.silviamarquez.com

Munduko labirintua eta bihotzeko paradisua

LUCIE ŽÁKOVÁ, ORGANOA
MARINA AOIZ, RECITANTE
GAZTELANIARAKO ITZULPENA: ENRIQUE GUTIÉRREZ RUBIO

Petr Eben, organoari dagokionez, musika txekiarraren ikurra da. Kontzertu-emailea, irakaslea, konpositorea eta miretsitako inprobisatzailea, jakin zuen iraganeko altxorretan topatzen ikuspegi berriak eta, hala, antzinako musika erabat berritzen. Kantu gregorianoa behin eta berriz inspirazio iturri izan zen beretzat, bai eta gai biblikoak eta literatura erlijiosoa ere, bazter utzi gabe arte garaikidea, azken batez hori baitzen bere erreminta eta adierazpidea. Horregatik guztiagatik, ez da harritzekoa inprobisazioari toki garrantzitsua eman izatea bere lan jardueran; inprobisazio horretatik sortu ziren ondoren paperean idatzitako lan asko, esate baterako, Bi fantasia koral, Patmosko paisaiak edo gaur bertan entzunen dugun obra.

Munduko labirintua eta bihotzeko paradisua, izatez, obra literario bat da, Jan Amos Komensky/ Comenius-ek (1592-1670) idatzia; Comenius filosofoa, teologoa eta idazle humanista izan zen, zalantzarik gabe Txekiako eta munduko kulturaren figura handietako bat. Izen bereko obra musikala hasiera batean zen inprobisatzeko zatien multzo bat, tartekatzen zena liburutik hautatu-tako pasarteen errezitazioarekin. Ebenek 2002an behin betiko forma idatzia eman zien inprobisazio horiei.

Ebenek berak honela deskribatu zuen bere ikuspegia:

Erromesak, munduko labirintua zeharkatzean, ez du atsegingarria zaion deus aurkitzen hor, eta bihotzean bere Jainkoarengara itzultzen da. Hala ere, nire ustez, Comeniusen jarreran hunkigarriena da zein nekaezina den mundua hobetzeko duen asmo horretan. Hori eredugarria da baita gaurko gizartearentzat ere: mundu honen gaineko ikuspegi kritiko propioa mantendu, eta aldi berean, mundua hobetzeko ahalegin guztiak egin.

Petr Ebenek Munduko labirintua eta bihotzeko paradisuen gainean egindako inprobisazioak Txekiar Errepublikako hiri askotan interpretatu dituzte. Pragako Rudolfinum-en 1996ko urtarrilaren 22an egindakoak CD batean grabatu zituzten. Gaur obra horren bertsio idatzia entzunen dugu; honetan ere errezitazioa eta organoa txandakatzen dira.



© ALEX BASHA

Lucie Žáková

Lucie Žáková Europako organista entzutetsuenekin ikasitako organista da. Errezitaldiak eman ditu Austrian, Holandan, Ingalaterran, Alemanian, Japonian eta Frantzian. Gaur egun Cuencan bizi da, eta han Carlos Arturo Guerrarekin batera garatzen ari da proiektu aitzindari bat organoa publiko zabalarari hurbiltzeko, bereziki Cardeneteko “Aula de Órgano”-n, Belmonten eta Cuencako katedralean. Gainera etengabeki proiektu musikalak garatzen ditu Txekiako Enbaxadarekin eta Madrileko Zentro Txekiarrarekin lankidetzan.

EGITARAUA

Petr Eben (1950–2007)

Munduko Labirintua eta Bihotzeko Paradisua [60’]

- I. Sarrera (Organoa bakarrik)
- II. Begirada bat munduari
- III. Maskarak
- IV. Heriotzaren geziak
- V. Maitasunaren eskuburdin gozoak
- VI. Akademiaren jaialdia
- VII. Jakintsuen ezjakintasuna
- VIII. Zoriaren gorpila
- IX. Gizakien kriminalitatea
- X. Urrezko aroaren promesa engainagarria
- XI. Hutsalkeriaren hutsalkeria
- XII. Izu-ikara eta ahuldadea
- XIII. Jainkoarenganako itzulera
- XIV. Epilogo (Organoa bakarrik)

Abesbatza eta organo musika

ROMÁN SERRA, ORGANOA
AULA DE MÚSICA, ABESBATZA
RICARDO ZOCO LAMPREABE, ZUZENDARIA

EGITARAUA

Johannes Brahms (1833–1897)

11 preludio koral, Op.122 (hautapena) [11'30"]

Mein Jesu, der du mich / Herzlich tut mir erfeuen /
Schmucke dich o liebe Seele / Herzlich tut mir
verlangen / O Welt, ich muss dich Lassen

Geistliches Lied, Op. 30 abesbatza eta organorako [4']

Charles W. Stanford (1852–1924)

Preludio Op. 105 nº 3 [2']

Edward Elgar (1857–1934)

Ave verum Corpus [2'15"]

Franck Bridge (1879–1941)

Six organ pieces. Nº 1 [3']

Gabriel Fauré (1845–1924)

Cantique de Jean Racine [6'10"]

Nemesio Otaño (1880–1956)

Meditación en Mi b Mayor [1'50"]

3 piezas para coro [5']

O quam amabilis est / Jainkoaren Ama /
Jesús vivir no puedo

José M^a Usandizaga (1887–1915)

Post Communio en Mi menor [2']

Maurice Duruflé (1902–1986)

Requiem (selec.) [9'50"]

Introito / Kyrie

Fugue sur le theme du Carrillon des heures
de la cathédrale de Soissons [4']



Román Serra Menéndez

Piano ikasketak egin zituen Maó-ko (Menorca) kontserbatorioan eta erdi mailako ikasketak Iruñeko Pablo Sarasate kontserbatorioan. San Martin Unxeko parrokiako organista titularra da, Coral Tafallesa abesbatzaren organista laguntzailea eta Tafallako Santa Cecilia talde gregorianoaren zuzendaria. Gaur egun organoko goi mailako ikasketak egiten ari da Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioan.

18:00
ORGANOA IKUSTEKO BISITA GIDATUA

19:00

Egurra organoari! Musika ibiltaria oboe eta organorako

IÑIGO MORENTIN, ORGANOA
ANAI TELLETXEA, OBOEA

El programa que vamos a escuchar esta tarde pretende hacer posible algo que lleva muchos años sin producirse: la unión de la sonoridad de la iglesia de San Miguel con el sonido de un órgano de tubos, además del sugerente timbre y dinámicas del oboe, un instrumento de doble caña que cuenta con amplia trayectoria en la Historia de la Música occidental. La unión de órgano y oboe es una de las más fructíferas a nivel musical, y esta tarde van a servir para presentarnos pequeñas piezas musicales con intención de adelantar, por lo menos en parte, la sonoridad del magnífico órgano de San Miguel; cuando quiera que se produzca su restauración. Algo que debería realizarse sin esperar demasiado, pues se trata de uno de los instrumentos más interesantes y ricos, por diversos motivos, de todo el patrimonio organístico navarro.

EGITARAUA

Fray Manuel Espona (1714-1779)
Sonata de pastorela [3'05"]

Pablo Bruna (1611-1679)
Tiento de falsas de primer tono [5'05"]

Jusepe Ximénez (1600-1672)
Batalla de sexto tono [4'30"]

Egile ezezaguna
Zenbait minuet eta tokata [5'00"]
(Antonio Martín y Coll-en Flores de Música-tik hartuak)

Francisco Correa de Arauxo (1584-1654)
Tiento de cuarto tono a modo de canción [5'00"]

Charles John Stanley (1712-1786)
Voluntary V [4'00"]

Egile ezezaguna
Sarabandak [5'00"]
(Antonio Martín y Coll-en Flores de Música-tik hartuak)



Iñigo Morentin eta Anai Telletxea

Iñigo Morentin eta Anai Telletxea bi musikari gazte dira; jardunbide interesgarria dute eta apustu handia egin dute musikaren munduan aurrera egiteko.

Anai Telletxeak ikasketak egin zituen Burlatako Hilarión Eslava musika eskolan eta Pablo Sarasate Kontserbatorio Profesionalean. Gaur egun oboe ikasketak egiten ari da Aragoiko Goi Mailako Musika Kontserbatorioan.

Iñigo Morentinek ikasturte honetan bukatuko ditu organo ikasketak Pablo Sarasate Kontserbatorio Profesionalean; aurretik Zizur Nagusiko musika eskolan aritu zen ikasten.

Biek behin baino gehiagotan jo dute ganbera-taldeetan; besteak beste, «Fernando Remacha» Ganbera-Musika lehiaketan, 2017-2018 ikasturtean.

Miscellanea Hispanica (J. Oxinagaren jaiotzaren hirugarren mendeurrenean)

RAÚL DEL TORO, ORGANOA

Azkoiengo organoa XIX. mendean berreraiki zuten, XVI. mendekoak ziren elementuekin. Entzunen ditugu mende horietan zehar bere tutuetan jo diren musika mota desberdinak; gainera, horrek berak adierazten du egungo tenplu neoklasikoaren historia, aurretik eliza errenazentista baitzegoen.

EGITARAUA

I. BERTAKO TRADIZIOA

Antonio de Cabezón (1510–1566)
Tiento del 2º tono [3'30'']

Francisco Correa de Arauxo (1584–1654)
Medio registro de tiple de 10º tono [4']

Jusepe Ximenez (Tutera ca. 1600–Zaragoza 1672)
Pange lingua [4'30'']
a 4 sobre contralto
a 3 sobre contralto
otro sobre bajo

Sebastián Durón (1666–1716)
Gaytilla de mano izquierda [4']

Juan Cabanilles (1644–1712)
Tiento de batalla de 5º tono punto baxo [5'30'']

II. NAZIOARTEKO ESTILORANTZ

Diego Xarava (1652–ca. 1715)
Obra de lleno de 3º tono [4']

Joaquín de Oxinaga (1719–1789)
Fuga en Sol menor [6'10'']
Fuga en Mi menor

Fray Joaquín de Asiain (Corella 1758–Madril 1828)
Versos largos para Nona el día de la Ascensión [7']
Allegro / Allegretto / Andante / Allegretto

Joseph de Nebra (1702–1768)
Sonata en Fa Mayor [2']

Fray Joaquín de Asiain
Versos largos de 2º tono [7']
Grave–Allegro / Andante / Expresivo [Tempo ordinario]

Joseph de Nebra
Tocata en Do menor [3']

José Lidón (1748–1827)
Sonata n.º 1 [4'30'']
Largo / Yntento / Largo



Raúl del Toro

Iruñean, Bartzelonan eta Amsterdamen ikasi zuen, eta Espainia osoan eman ditu kontzertuak, bai eta Amerikako eta Asiako zenbait herrialdetan ere.

Organo irakaslea da Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioan. Gainera, Salamancako eta Iruñeko kontserbatorio profesionaletan irakatsi du, eta irakasle gonbidatua da Kantabriako Unibertsitatearen Organoko Nazioarteko Ikastaroan.

RNEko Radio Clásica irratian, «El órgano» zuzendu eta aurkeztu zuen, astean behingo saioa. Organista da Iruñeko Salbatzailearen elizan, hango John Hele & Co. (1878) organoa jotzen du, eta zuzentzen du Gaudeamus Schola Gregorianoa.

Katedraletako damarendako tientoak. Segoviako katedraleko musika, organoak eta organistak

ÁNGEL MONTERO HERRERO, ORGANO

Antzinatik, Segoviako katedralaren musika jardueraren ezaugarriak izan dira duen historia luzea, musika artxibo handia, instrumentu bikainak eta musikari multzo ugaria. Bi izen nabarmentzen dira handik igarotako organisten artean: Francisco Correa de Arauxo eta Antonio Brocarte. Kontzertua bi horien arteko elkarriketa da, Segoviako Katedraleko Kantutegiko lau Eguberri-kanta polifonikok moderatua, eta bukatuko da konposizio garaikide batekin, Segoviako katedraleko epistola aldeko organoan estreinatua; oinarritzen da hiriko zaindariaren ereserkian.

EGITARAUA

Francisco de la Torre (1450–1504)

Adoramus te, Señor | Damos gracias a ti, Dios
(Cancionero de la catedral de Segovia)

Francisco Correa de Arauxo (1584–1654)

Tiento y discurso de segundo tono (Facultad Orgánica, nº 2)

Antonio Brocarte (1629–1696)

Registro alto de 2º tono

Francisco Correa de Arauxo

Segundo tiento de cuarto tono, a modo de canción
(Fac. Orgánica, nº 16)

Antonio Brocarte

Obra de lleno de primer tono

Juan de la Encina (1469–1529)

Pues que jamás olvidaros

Anónimo

DezÍ, flor resplandesçiente

Antonio Brocarte

Obra de quinto tono

Francisco Correa de Arauxo

Tiento de noveno tono (Facultad Orgánica, nº 9)

Antonio Brocarte

Registro de dos triples de séptimo tono, por E la mi

Francisco Correa de Arauxo

Tiento de registro entero, de primer tono
(Facultad Orgánica, nº 52)

Enrique Martín-Laguna Monreal (1990)

Fantasia para Nuestra Señora de la Fuencisla



Ángel Montero Herrero

Organo irakaslea da Madrileko Arturo Soria Musika Kontserbatorio Profesionalean, eta Segoviako katedraleko organista. Madrilen eta Munichen ikasi zuen Roberto Fresco eta Bernhard Haas irakasleekin. Lehenbiziko saria eskuratu zuen Algemesi-ko Iohannes Baptista Cabanilles IV. lehiaketan, 2017an. Andrés Segovia-José Miguel Ruiz Morales saria eskuratu zuen 2010ean, «Música en Compostela» jardunaldietan. Espainiako toki askotan eman ditu kontzertuak, bai eta Alemanian, Italian, Suitzan, Frantzia eta Marokon ere.

HITZALDI IRUDIZTATUA

Segoviako katedraleko ebanjelio aldeko organoaren zaharberritzea

JOAQUÍN LOIS CABELLO, ORGANOGILE MAISUA ETA
ORGANOA ZAHARBERRITZEKO PROIEKTUAREN ZUZENDARIA
ÁNGEL MONTERO HERRERO, SEGOVIAKO KATEDRALEKO
ORGANISTA TITULARRA

Segoviako katedrala lan handia ari da burutzen bere organo ondarearen gainean: duela urte batzuk epistola aldeko organoa zaharberritu ondoren, koruaren beste aldeko organoan, ebanjelio aldekoan, lan bera egiten ari dira.

Gaur egun, halako garrantzia eta hedadura duen proiektu batek barne hartu behar ditu egindako zaharberritze lana garatuko duten alderdiak ere. Horretarako, ezinbestekoa da organista profesional bat edukitzea, lan artistikoa egin dezan eta sustatu ditzan instrumentu hau bezalako musika tresna adierazgarriak.

Zein pauso eman dira organoa zaharberritzeko? Nola planteatu da Segoviako katedralaren proiektua? Saiatuko gara horren berri izaten mahai-inguru honetan, zeinak izanen baitu zaharberritze prozesuaren ikus-entzunezko material asko.



Sinfonismotik irudimenaren mugetara

ESTEBAN LANDART, ORGANOA

Organo kontzertuaren programa hasten da Ch. M. Widor-en sinfonismo ederrarekin, zeina inspiratu baitzuen Aristide Cavaillé-Coll handiaren plastikotasun instrumentalak, eta bukatzen da Jehan Alain-en hiru dantzekin, zeina baita sinbolismo iragarlez beteriko lana. Bilakaera musikala eta instrumentala.

EGITARAUA

Ch. M. Widor (1844–1937)
6ème Symphonie en Sol mineur Op. 42 N° 2 [35']
Allegro / Adagio / Intermezzo / Cantabile / Finale

Jehan Alain (1911–1940)
Trois Danses [24']
Joies / Deuils / Luttés

Esteban Landart

Piano eta organo ikasketak egin zituen, eta Lyongo CNSMn Jean Boyer-ekin ikasi zuen. Gaur egun, ogibidez irakasle izateaz gain, kontzertu ugari ere ematen ditu. Koordinatzen du Donostiako Elizbarrutiaren jabetzako Organoak eta Harmoniumak Zaindu eta Zaharberritzeko Batzordea. Bere errepertorioan estilo eta garai guztiak lantzen ditu.

Organo irakaslea da Baionako CRRn eta Musikenen, Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegian.

<https://elandart.wixsite.com/elandart>

IRAILAREN 20A

HARRIONDOA KULTUR ETXEA, 19:00
MAHAI-INGURUA.

Lesakako organoaren gaineko kultura proiektua

JOSÉ LUIS ECHECHIPÍA PARÍS, ORGANISTA
GABI IGARZABAL, «ASOCIACIÓN DE AMIGOS DEL ÓRGANO ROQUÉS» ELKARTEKO BURUA



José Luis Echechipía París

Bere lanbide jarduera zenbait alorretan garatzen du: interpretazioa, irakaskuntza, eta musikaren, organoaren eta giza ondarearen hedapena. Leireko monasterioan egiten du lan organista titular gisa, ANAOk (Asociación Navarra de Amigos del Órgano) lehendakariordea da eta zenbait proiektu profesional garatzen ditu.

Informazio gehiagorako: www.organo-navarra.com

IRAILAREN 21A

SAN MARTIN, 12:00
ORGANOAK IKUSTEKO BISITA GIDATUA

SAN MARTIN, 19:30
KONTZERTUA

Goieneko aldiak berreskuratuz. Lesaka eta organoa, konplizitate historia luze bat

JOSÉ LUIS ECHECHIPÍA PARÍS, ORGANOAK
LESAKAKO ABESBATZA
MARISOL PÉREZ OLAETXEA, ZUZENDARIA

Organoa, historikoki, aunitz zaindutako musika elementua izan da Lesakan. Oraingo organoa XIX. mendearen bukaerakoa da. Hagitz elementu interesgarria da, bai dituen ezaugarriengatik eta bai organista aunitz teklatu horietan trebatu direlako; bereziki Miguel Echeveste eta Luis Taberna, XX. mendeko organista nafar entzutetsuenak.

EGITARAUA

José Lidón (1748–1827)

Sonata nº 1 en Sol Mayor [4']

Lorenzo Perosi (1872–1956)

Missa seconda Pontificalis: Kyrie [5']

Miguel Hilarión Eslava y Elizondo (1807–1878)

Ofertorio nº 11 sobre Sacris Solemnis [5']

Wolfgang Amadeus Mozart (1756–1791)

Vesperae solemnes de confesore: Ave verum Corpus [3']

Nicolás Ledesma (1791–1883)

Elevación nº 11 [6'24"]

Felipe Gorriti (1839–1896)

Sonata en Re Mayor [4'10"]

Francisco de Madina, Aita Madina (1907–1972)

Aita gurea [4']

Jesús Guridi (1886–1961)

Dos piezas de la Escuela española de órgano [6'50"]

Canción vasca / Ofertorio

(Miguel Echeveste Arrietari eskainia)

Charles Gounod (1818–1893)

Missa brevis: Sanctus, Benedictus [5'15"]

Juan Ambrosio Arriola (1833–1866)

Ofertorio para órgano [5'06"]

Karl Jenkins (1944)

Ave verum Corpus [6'49"]

Oscar Hammerstein (1895–1960)

Edelweiss (The sound of music) [2'15"]

Hirunako pausoa: Frantzia-Espainia-Alemania

SUSANA G. LASTRA, ORGANOA

Hirunako pausoa: Frantzia-Espainia-Alemania programak proposatzen du bidaia musikal bat Europako hiru herrialde horietan barna; eskainiko du herrialde horiek dituzten estilistika desberdinen lagin bat, zeinetan antzeman ahal izanen den herri bakoitzaren idiosinkrasia islatzen duen kolore eta forma aniztasun hori.

Hori guztia, organoari esker, instrumentu hori historiaren lekukoa baita, soinu-erretaula bat, uzten diguna iraganeko doinuez gozatzen orainean.

EGITARAUA

FRANTZIA

Lambert Chaumont (1630–1712)

Deuxième ton in g (Pièces d'orgue 1695) [8']

Prélude / Fugue gaÿe / Cornet / Fugue grave /
Récit / Voix humaine / Duo / Basse de Cromhorne /
Dialogue / Plein Jeu

Jean-Philippe Rameau (1683–1764)

Tambourin [2'10"]

Joseph Guy Ropartz (1864–1955)

Prélude Funèbre [7']

ESPAINIA

Manuel Castillo (1930–2005)

Fantasía para un libro de órgano (1972) [5']

Francisco Correa de Arauxo (1584–1654)

Tiento de quarto tono (1626) [4']

Joseph de Torres y Vergara (1661–1727)

Batalla de Torres [7']

ALEMANIA

Johann Jakob Froberger (1616–1667)

Toccata in Sol Mayor [3'25"]

Johann Sebastian Bach (1685–1750)

Choral *Wer nur den lieben Gott läßt walten* (BWV691) [2'70"]

Arnold M. Brunckhorst (1670?–1725)

Praeludium in e [5']

Georg Böhm (1661–1733)

Choral *Vater unser im Himmelreich* [4']

Johann Sebastian Bach (1685–1750)

Fuga Do minorrean (BWV537) [4'15"]

Susana G. Lastra



Organista asturiarra da, Pianoan, Organoan eta Filologian tituluduna; ikasi zuen Espainian J. E. Ayarrarekin eta M. Torrentekin, bai eta, besteak beste, honako hauekin ere: J. W. Jansen, P. Van Dijk, M. Radulescu, O. Latry, H. Vogel, L. Tagliavini eta M. C. Alain.

Sariak ere eskuratu ditu: Goi Maila Bukaerako saria, Musika Interpretazioaren saria (Sevilla, 1999) eta Rosa Sabater saria (Santiago, 2002). C. Halffter lehiaketako epaimahaikidea izan da eta hainbat organo ziklo ere antolatu ditu. Grabaketak egin ditu eta Europako jaialdirik garrantzitsuenetan parte hartu du. Zenbait taldetan parte hartu du H. Rilling, R. King eta beste batzuen zuzendaritzapean.

Sevillako Los Venerables ospitaleko organista, artzapezpikutzaren organo ikastaroko irakaslea eta Sevillako Unibertsitateko MAEseko irakaslea. AsturOrg-eko lehendakaria da.

Europa osatu zen Donejakuera erromes ibilita (Goethe)

ÁLVARO LANDA ÁLVAREZ, ORGANO

Donejakue bideak mila urte baino gehiago ditu; sorrera du IX. mendean, Donejakue apostoluen hilobirako erromesaldiak hasi zirenean. Donejakue bideak erakarren paregabea izan zuen Europa guztiko kristautentzat, eta bere garaiko ibilbide komertzialik garrantzitsuenetakoa bihurtu zen; gero, gainbehera izan zuen, harik eta XX. mendeko azken hamarkadetan berriz ere ospea hartzen hasi arte.

Gaurko kontzertuan entzun ahal izanen dituzue Frantsesbideak deitutako ibilbideek zeharkatzen dituzten lurraldeetako autoreen obrak. Lehenbiziko ibilbidea Parisen hasten da eta bigarrena Lyonen; hementxe elkartzen dira, Garesen, eta bidea bukatzen da Santiago de Compostelan.

EGITARAU

Louis Couperin (Chaumes en Brie, 1626–Paris, 1661)
Chaconne in G minor [3’]

Francois Couperin (Paris, 1668–Paris, 1733)
Messe pour les convents [1’50’’]
Kyrie / Plain Jeu / Premier Couplet du Kyrie

Louis Marchand (Lyon, 1669–Paris, 1732)
Fond d’orgue [2’]
Dialogue – Grand – Jeu Deuxième Livre [1’30’’]

Jusepe Ximenez (Tutera, ca. 1600–Zaragoza, 1678)
Pange Lingua 5. Sobre vajo por delasolré
Pange Lingua 6. Por delasolré, a 3 sobre triple
Pange Lingua 7. A 3 sobre alto por cesolfaúd
Pange Lingua 8. Sobre vajo a 3

Sebastián Aguilera de Heredia (Zaragoza, 1561–1627)
Pange Lingua por ce sol fa ut [2’]
Tiento de falsas 6º tono [2’]
Registro Bajo del I Tono [4’30’’]

Antonio de Cabezón (Castrillo de Matajudíos, 1510–
Madril, 1566)
Pavana con su glosa [3’]
Tiento del Primer Tono [2’]
Diferencia sobre el canto llano del Caballero [3’]

Manuel Soler Palmer (Mallorca, 1874–Santiago, 1954)
Himno al Santo Apóstol [4’30’’]



Álvaro Landa Álvarez

Tafallan (Nafarroa) jaio zen 1988an eta musika ikasketak piano espezialitatean hasi zituen 8 urterekin, Tafallako Udaren Musika Eskolan. Ondoren, erdi mailako ikasketak egin zituen Iruñeko Pablo Sarasate Musika Kontserbatorio Profesionalean. 2006-2009 urteen artean maisu diploma eskuratu zuen musika espezialitatean, Nafarroako Unibertsitate Publikoan. Ikasketak bukatu, 2009an sartu zen Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioan Musika Hizkuntzaren Pedagogia espezialitatean, eta Pablo Sarasate Musika Kontserbatorio Profesionalean organo espezialitatean, irakasle Raúl del Toro Sola eta Gonzalo Caballero García zituela. 2013an bukatu zituen Musika Hizkuntzaren Pedagogiako goi mailako ikasketak. Azkenik, 2015ean lortu zuen Gradu Profesionala organo espezialitatean. Tafallako Antso III.a Erregea abesbatzako pianista-organista titularra izan da eta abesbatza horrekin egin ditu kontzertuak eta kongresuak Espainiako eta Europako zenbait tokitan. Gaur egun, kontzertuak emateaz gain, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako irakaslea da Iruñeko Irabia-Izaga ikastetxean.



Musika bidean

IOSU LARUMBE ITURBIDE, ORGANOA

Erromesarentzat pentsatua, programaren asmoa da jasotzea zenbateko aniztasuna aurki daitekeen Donejakue bidean zenbait alderdiri dagokienez, izan pertsonak, paisaiak, kulturak edo emozioak. Era berean, pieza bakoitza eta haren inspirazioa berezia eta bakarra den gisan, erromes bakoitza eta bideari ekiteko duen arrazoia ere berezia eta bakarra da.

EGITARAUA

Johann Kaspar Kerll (1627–1693)
Passacaglia [6']

Felix Mendelssohn (1809–1847)
Sonata VI, opus 65 [15']
Korala eta bariazioak / Fuga / Finale (andante)

Louis J. A. Lefébure-Wely (1817–1869)
Méditations religieuses, opus 122 [3']
Andante Choeur de voix humaines

Camile Saint-Saëns (1835–1921)
Rhapsodie III sur des cantiques bretons, opus 7 [7']

Felipe Gorriti (1839–1896)
Marcha fúnebre en Do menor [7']

Iosu Larumbe Iturbide

Martzillar honek Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioan egin zituen organo ikasketak, Raúl del Toro irakaslearekin. Gainera, Hizkuntza eta Hezkuntza Musikalaren Pedagogiaren titulua lortu zuen ikastegi horretan berean. Bere prestakuntza bidean, hobekuntza ikastaroak egin ditu honako irakasle hauekin: Jacques Ogg, Els Biesemans, Fabio Ciofini, Benoît Mernier, Raúl Prieto, Michel Bouvard, Géraud Guillemot eta Daniel Roth.

Musika hizkuntzako eta pianoko irakaslea da; 2000. urtetik aitzina, Atarrabiako San Andres Abesbatzaren pianista eta organista laguntzailearen lanak egiten ditu, eta, aldi berean, komunitateko beste zenbait abesbatzarekin aritzen da lankidetzan. Jarduera horiez gain, liturgiako organista gisa jarduten du zenbait parrokiatan. Musikari laguntzaile edo bakarlari moduan, Nafarroako zenbait herritan jo du.

IRAILA

7 LARUNBATA
ORREAGA
ANDRE MARIA, 18:45
Musika bidean^(E)
losu Larumbe, organoa

13 OSTIRALA
GARES
SAN PEDRO, 18:00
Europa osatu zen
Donejakuera erromes
ibilita (Goethe)^(E)
Álvaro Landa, organoa

14 LARUNBATA
IRUÑA
SAN NIKOLAS, 18:00
Hirunako pausoa:
Frantzia-Espainia-
Alemania^(K)
Susana García, organoa

20 OSTIRALA
ORREAGA
ANDRE MARIA, 18:45
Musika bidean^(E)
losu Larumbe, organoa

20 OSTIRALA
LESAKA
HARRIONDOA KULTUR
ETXEA, 19:00
Mahaingurua
Lesakako organoaren
gaineko kultura
proiektua
José Luis Echechipía,
organista
Gabi Igarzabal,
«Asociación de Amigos del
Órgano Roqués» elkarteko
burua

21 LARUNBATA
LESAKA
SAN MARTIN, 12:00
Organoa ikusteko bisita
gidatua
SAN MARTIN, 19:30
Goieneko aldiak
berreskuratuz^(K)
José Luis Echechipía,
organoa
Lesakako Abesbatza
M. Pérez Olaetxea,
zuzendaria

21 LARUNBATA
GARES
SAN PEDRO, 18:00
Europa osatu zen
Donejakuera erromes
ibilita (Goethe)^(E)
Álvaro Landa, organoa

22 IGANDEA
LEIRE
SAN SALBATORE, 12:45
Sinfonismotik
irudimenaren mugetara^(K)
Esteban Landart, organoa

27 OSTIRALA
IRUÑA
KONDESTABLEAREN
JAUREGIA, 19:00
Hitzaldi irudiztatua.
Segoviako katedraleko
ebanjelio aldeko
organoaren
zaharberritzea
Joaquín Lois, organogilea
Ángel Montero organista

28 LARUNBATA
IRUÑA
SAN DOMINGO, 18:00
Katedraletako
damarendako tientoak.
Segoviako katedraleko
musika, organoak eta
organistak^(K)
Ángel Montero, organoa

URRIA

5 LARUNBATA
AZKOIEN
SAN JUAN, 19:00
Miscellanea Hispánica
(J. Oxinagaren
jaiotzaren hirugarren
mendeurrenean)^(K)
Raúl del Toro, organoa

12 LARUNBATA
CÁRCAR
SAN MIGEL, 18:00
Organoa ikusteko bisita
gidatua
SAN MIGEL, 19:00
Egurra organoari!
Musika ibiltaria oboe
eta organorako^(E)
Iñigo Morentin, organoa
Anai Telletxea, oboea

18 OSTIRALA
IRUÑA
SALBATZAILEA, 20:00
Abesbatza eta organo
musika^(K)
Román Serra, organoa
Aula de Música, abesbatza
Ricardo Zoco, zuzendaria

19 LARUNBATA
LEIRE
SAN SALBATORE, 17:30
Munduko labirintua eta
bihotzeko paradisua^(K)
Lucie Žáková, organoa
Marina Aoiz, errezitatzailea

26 LARUNBATA
CASCANTE
LA VICTORIA, 18:00
Eliza ikusteko bisita
LA VICTORIA, 18:30
Romanescak, foliak
eta sonatak: Europara
begira^(K)
La tempestad
Antonio Clares, viola da
braccio
Silvia Márquez, organoa

AURKEZPENA

Haizea arte bihurtua


Badira 35 urte proiektu eder hau garatzen ari garela, eta urtero ematen digu aukera proposamen desberdinak egiteko edertasunaren zerbitzura «haizea modelatzeko» arte honen gainean. Eta ez bakarrik edertasunaren zerbitzura; «Organo Musika Nafarroan» zikloak lortzen du konektatzea, hala nahi duena, mundu zoragarri batekin, konplexua eta sinplea aldi berean, antzinakoa eta modernoa batera, eta, batez ere, zirrargarria. Zirrara hori abiatzen da aldi berean sentimenduetatik, arrazoimenetik, eta musikak, bereziki organo musikak, duen dohain berezi horretatik, alegia, hizkuntza mintzatua gainditzeko dohainetik.

Aurten, 2019an, disfrutatuko dugu, ohi dugunez, proposamen artistiko ezberdinez, bai edukiari dagokionez eta bai autoreei dagokienez: XVI. mendeko testuak XX. mendeko musikarekin, abesbatzarako musika organoarekin, bidean dabiltzan erromesentzako entzunaldiak, organo musika “organorik gabe”, egungoa... Izanen ditugu lehen aldiz datozen organistak, behin baino gehiagotan etorri direnak, bisitatuko ditugu toki berri eta iradokitzaileak, eta Nafarroan dugun organisten “harrobiaren” zati handi bat ere erakutsiko dugu. Zeren eta gure lurraldeak ez du bakarrik organoak izatearen aberastasun materiala (nahiz eta premiaz behar dituzten moldaketak eta arreta); izatez, gero eta organista gehiago ere baditu: giza ondare ezinbestekoa eta lehenbiziko mailakoa, zeina edizio honetan bere edertasun guztian ikusi ahal izanen den.

Zatozte, irakurri eta... prestatu!

José Luis Echechipía

Organo Musika Nafarroan zikloko zuzendari artistikoa



@cultura_na

@culturadenavarra

@culturanaavarra

ORGANO

2019 IRAILAREN 7TIK - URRIAREN 26RA
35. EDIZIOA

MUSIKA NAFARROAN

Saizea arte

bihurtua

